



Ajangizko Udala

**AJANGIZKO UDALAK 2009KO URTARRILAREN 19AN
OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko urtarrilaren 19an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da premiazko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

**1.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO PROIEKTUAREN
ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak, azaroaren 28ko 9/2008 Erret Dekretu Legeak sortzen duen Tokiko inbertsiotarako Estatu mailako fondora Ajangizko Udalak aurkeztu asmo duen proiektua aurkezten du. "Kanpantxuko argindarra hobetzeko proiektua" Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak egin du. Proiektuaren helburua, Kanpantxu auzoan dagoen transformadorea aldatu eta auzoari argindarra ematea da, bai sortzen diren alta berriei aurre egiteko baita gaur egungo etxebizitzei argindar potentzia handiagoa emateko ere.

Transformadorea Garatzenaren terrenotan kokatuko da, berak horretarako emandako oneritzia kontutan hartuta, eta bertarainoko argindar sarea lurperatua joango da herribidearen erditik. Transformadore zaharra desmontatu egin behar da, eta lan honek gaur egun dauden poste batzuk kentzea ere ekarriko du. Proiektuan ez da transformadore berriaren kostua azaltzen, kostu hori Iberdrolak hartu baitu bere gain.

Hau guztia kontutan hartuta, proiektuaren aurrekontu orokorra 78.229,00 eurokoa da.



Ajangizko Udala

Proiektua aurkeztuta eta botaziora eramanda, honako emaitza lortu da:

- Aldeko botuak, bost, Koldo Carbonell, Jabier Berrojalbiz, Angel Luis Uribarri, Maria Angeles Goikolea eta Beñat Erezuma zinegotzienak.
- Abstentzioak, bi, EAJ-PNV taldeko zinegotzienak.
- Kontrako botuak: ez daude.

Abstentzioaren zergaitiari erantzunez, Roman Etxeandia jaunak, proiektua egin beharra dagoela dudan ez duela jartzen azaltzen du, baina bere ustetan dirulaguntza hau herri osoari dagokio, eta proiektu honetan inbertitzeak prezedente bat sortuko du herrian. Beste auzoetan ere partikularrak argindar potentzia gutxirekin aurkitzen badira, Udalari eskatuko diote transformadore berriaren kostua berak hartu dezala.

Emaitza kontutan hartuta, proiektua gehiengoz onartuta geratzen da.

Halaber, Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, aho batez, Udaletxeko Idazkaria dan Saioa Pineda Aranburu Andrea Ajangizko udalerriko ordezkari modura ahalmentzen du, azaroaren 28ko 9/2008 Erret Dekretu Legeak araututako dirulaguntza eskaera egiteko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko zortzii t´erdiak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA